

# SAGARDOAREN LURRALDEA

el territorio de la sidra

**2018 UZTAKO  
SAGARDO SAGARRAREN  
HELDUTASUNAREN EGOERA**

**Kontaktua:**

Leire Alkorta (Prensa arduraduna)  
943 550 575  
[info@sagardoarenlurraldea.eus](mailto:info@sagardoarenlurraldea.eus)

[www.sagardoarenlurraldea.eus](http://www.sagardoarenlurraldea.eus)

# 2018 SAGARDO SAGARRAREN EGOERA

**Aurreko urteetan bezala, Fruitel eta Sagardoaren Lurraldearen 2018 uztako XVIII. sagardo sagarraren heldutasunaren txostena aurkezten dugu. Txostenaren puntu nagusiak hauek dira:**

- Aurreko urtearekin konparatuta, heldutasuna berdindator, aurreratuta, nahiz eta aurten loraldia beranduago etorri izan.
- Ekoizpena, aurreko urtearekin konparatuta, nabarmen ahulagoa izango da.
- Ekoizpena oso irregularra da, sagasti batzuk hutsik dauden bitartean beste batzuk gainezka daude.

Iraila hasieran eta azken urteetan bezala, Gipuzkoako sagasti ezberdinetan kontrol bat egin da, sagarren egoera zein den jakin ahal izateko.

Honetarako, Gipuzkoako zenbait sagasti jarraitu ditugu eta 14 barietate kontrolatu dira: Aritza, Errezila, Gezamina, Goikoetxe, Manttoni, Moko, Mozolua, Patzolua, Txalaka, Udare Marroi, Urdin, Urtebi Haundi, Urtebi Txiki eta Verde Agria.

Aurten loraldia beranduago etorri da eta luzeagoa izan da. Udaberria oso euritsua izan da eta uda beroa eta lehorra izan da.

Ekoizpena, aurreko urtearekin konparatuta nabarmen ahulagoa izango da. Aipatzekoa da, baita ere, oso irregularra dela, sagasti batzuk hutsik dauden bitartean beste batzuk gainezka daude.

Aurten arjoaren erasoak konstanteak eta etengabeak izan dira udaberri eta uda osoan zehar, kalte handiak sortuz.


Heldutasunaren txosten hau [www.sagardoarenlurraldea.eus](http://www.sagardoarenlurraldea.eus) orrialdean eskuragarri dago.

## Sagarraren heldutasuna

Heldutasun kontrola iraileko 2. astean egin da, aurreko urteetan bezala. Heldutasuna neurtzeko bi modu erabili ditugu: lehenengoan, azukre maila jakiteko, sagarren indize refraktometrikoa (°Brix) neurtu da; eta bigarrenetan, almidoiaren erregresioa jakiteko, iodo indizea neurtu da, 1-10 eskalan, Europako araudiari jarraituz.

## Indize refraktometrikoa - °Brix

Hurrengo grafikoan iraileko 2. asteko brix graduen garapena ikus dezakegu. Bertan, 2018. urteko °Brix datua, 11,2-koa da, aurreko urtekoa baino baxuagoa.



Hurrengo taulan azken 10 urteetako °Brixen datuak ikus daitezke:

Año	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
°Brix	10,8	10,7	11,3	11,9	10,8	10,2	11,2	11,7	11,7	11,2


Hurrengo taulan azken sei urteetako barietate ezberdinen indize refraktometrikoa (°Brix) ikus daiteke:

°BRIX						
BARIETATEAK	2013	2014	2015	2016	2017	2018
ARITZA	10,3	9,4	10,4	11,8	11,3	10
ERREZILA	11,0	11,1	11,7	11,7	11,4	11,3
GEZAMINA	10,8	10,1	11,5	11,3	11,6	11,6
GOIKOETXE	11,9	11,3	12,1	12,4	12,6	11,8
MANTTONI	10	10	10,3	11,4	11,9	10,3
MOKO	11,4	10,4	11,4	12,9	11,3	10,7
MOZOLUA	11	10,1	11,5	12,3	12,3	11,6
PATZOLUA	10,5	10,4	11,1	11,5	12	12,3
TXALAKA	11,2	10,2	11,3	11,5	11,6	11,4
UDARE MARROI	11,3	10,9	11,9	11,2	12,1	11,4
URDIN	11,1	10,7	12,1	12,9	11,9	11,5
URTEBI HAUNDI	10,4	9,6	10,7	10,8	11,1	10,7
URTEBI TXIKI	10,4	9,4	10,6	10,4	11,1	10,5
VERDE AGRIA	10,5	9,7	10,5	11,6	11,4	11,0

Barietatez barietate begiratuta, aurtengo kontrolean °Brix altuena Patzolua 12,3 °Brixekin du. Aldiz, baxuenak, Aritza 10°rekin eta Manttoni 10,3 °Brix ekin eman dituzte.

### Almidoiaren erregresioa

Hurrengo grafikoan almidoiaren erregresioaren garapena ikus dezakegu. Aurtengo datua aurreko urteko bezalakoa da, 3,8 ko indizea eman baitu.



Hurrengo taulan azken 10 urteetako datuak ikus daitezke:

Urtea	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
°Brix	3,3	3	4,4	2,6	2,3	3,4	3,6	2,4	3,8	3,8



Hurrengo taulan azken sei urteetako almidoiaren erregresioa ikus daiteke, barietate ezberdinetan irailako 2<sup>o</sup> astean:

<b>ERREGRESIOA</b>						
<b>BARIETATEA</b>	<b>2013</b>	<b>2014</b>	<b>2015</b>	<b>2016</b>	<b>2017</b>	<b>2018</b>
ARITZA	2,1	5	4,6	2,3	3,7	4,8
ERREZILA	1	1,2	1,4	1,2	1,9	1,5
GEZAMINA	2,8	4,5	4,5	2,3	4,5	4,4
GOIKOETXE	8,1	8,1	8,1	8,5	8,5	8,5
MANTTONI	1,6	1,7	2,8	1,6	3,4	3,3
MOKO	1,2	1,5	1,8	1,5	1,9	1,5
MOZOLUA	2,8	4,8	4,6	2,6	4,4	5,1
PATZOLUA	3,2	4,7	5,9	2,5	6,1	5,2
TXALAKA	1,5	3	3,2	2,1	4,6	4,3
UDARE MARROI	1,2	2,6	1,9	1,3	1,9	2,7
URDIN	2,2	2,2	2,3	2,0	3	2,8
URTEBI HAUNDI	1,7	2,9	2,6	1,5	2,9	3,1
URTEBI TXIKI	2,5	3,2	3,6	2,1	3,6	3,8
VERDE AGRIA	1,4	2,4	2,7	1,8	2,8	2,8

Goikoetxe barietatea alde batera utzita, erregresio altuenak Patzolua 5,2rekin, Mozolua 5,1rekin, Aritza 4,8ekin Gezamina 4,4rekin eta Txalaka 4,3rekin izan dituzte. Aldiz, Errezila eta Moko 1,5rekin erregresio baxuenak izan dituzte.

### **PUNTU GARRANTZITSUENAK:**

**Orokorrean, 2018ko iraila hasieran, sagastietan azaldu diren zenbait puntu berezi ditzakegu:**

- Aurreko urtearekin konparatuta heldutasuna berdindator, aurreratuta, nahiz eta aurten loraldia beranduago etorri den.
- Azukre maila begiratuta, aurtengo urteak, bataz beste 11,2 °Brix ditu. Aurreko urtean baina baxuagoa.
- Almidoiaren erregresioa 3,8ko indizean dago, hau da, aurreko urtean bezala.
- Heldutasun datuak ikusita (almidoiaren erregresioaren arabera) Goikoetxe barietatea kenduta, 3 barietate talde ikus daitezke:
  - Aurreratuenak: Patzolua, Mozolua, Aritza, Gezamina eta Txalaka.
  - Erdikoak: Urtebi Txiki, Manttoni, Urtebi Haundi, Urdin, Udare Marroi eta Verde Agria.
  - Atzeratuenak: Errezila eta Moko.

**AITOR ETXEANDIA AZPIAZU – SAGARLAN S.L**  
**Fruitugintzan Aholkularia, 2018ko irailaren 11an**

